

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZIGOITIKO UDALA

#### **636/2021-B prozedura laburtuan epatzea**

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen legearen 49.1 artikuluan xedatutakoa betez, Miren Zuriñe Vigalondo Ochoa de Chinchetru eta Jesús M<sup>a</sup> Beltrán de Guevara Ruiz de Eguino, Alkatezak 2021eko uztailaren 29an hartutako Ebazpenaren kontra erabakitako instantziari jarraiki, 636/2021-B zenbakidun administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri duela eta espedientea Vitoria-Gasteizeko Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegira bidali dela jakinarazten da. Ebazpen horren bidez, Etxabarri Ibiñako etxebizitzaren eta eraikin erantsien transmisioa dela eta Hiri-lursailen Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergaren likidazioari jarritako berraztertze-errekurtsua atzera botatzen zen.

Gogoan izan iragarki honek auzi honen inguruan agerraldia gauzatu eta esku hartu nahi duten interesdun guztiei dei egiteko balio duela eta horretarako 9 eguneko epea ezartzen dela. Epe hori iragarki hau argitaratzen den egunaren biharamunetik hasiko da zenbatzen.

Ondategin, 2021eko abenduaren 27an

*Alkatea*

*JAVIER GORBEÑA GARCÍA*